

HERRITAR ZEIN ERAGILEEKIKO GERTUTASUNA ZEIN PARTE-HARTZEA **HOBETZEAREN INGURUKO KONTROL MOZIOA**

Olaia Duarte Lopezek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udaltzaren Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udaltzatan azter dadin. Mozioa 2018ko azaroaren 12an Zerbitzu Orokorren Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Urriaren 25eko udalbatzarrean, hainbat eragile etorri ziren pleno aretora ekimenak entzutera (udal eraikinetako garbitzaileak, administrariak, Alde Zaharreko gazteak, Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuko auxiliarrak...).

Jakina denez, kolektiboak etortzen direnean, gehienetan, haiekin erlazionatutako mozio bat eztabaidatu behar delako da; Udaltzatan osatzen dugun taldeen iritzia entzun nahi dutelako bertatik bertara.

Urriko plenoan, Etxez Etxeko Zerbitzuko langileek ordubetez itxaron zuten beren kontrol mozia lantzeko, eta ordurako 10 bat minutu falta zirela, Eneko Goia alkateak eta Udaltzako lehendakariak plenoa etetea erabaki zuen bazkaltzera joateko. Auxiliarrak hitza eskatu zuten eta haien mozia bazkaltzeko etenaldia baino lehen eztabaidatzea eskatu zuten, beste ordubetez ez itxaroteko, baina alkateak ez zuen erantzunik eman eta pleno aretotik atera zen. Udaltzatan osatzen dugun beste lau taldeetako zinegotziak zain gelditu ginen; beraz, uler daiteke mozia alde aurretik lantzeko aukera eman nahi genuela.

Hori dela eta, hilabete honetako batzordeetan alkatea interpelatu genuen. Gardentasun eta Lehendakarietako zinegotziak adierazi zigun udalbatzarrek arautzen dituen erregalamentuak definitzen duela nolakoa izan behar den udalbatzara eta lehendakariaren esku (hau da, alkatearen esku) dagoela hura noiz eten erabakitzea.

Talde honen ustez, zinegotziak ez zuen argitu zer dela eta alkateak ez zion erantzunik eman Etxez Etxeko Laguntzako langileek egindako eskaerari, ezta gure taldeko bozeramaileak egindakoari ere.

Herritarren parte-hartzea sustatzeko eta gardentasunez jokatzeko malgutasuna guztiz beharrezkoa da, baina berriro ere udal alkateak eta gobernu honek udalbatzarretara etortzen diren pertsona zein eragileekiko enpatia falta adierazi du.

Azaldutako egoera kontuan hartuta, behean sinatzen duen zinegotziak honako **MOZIO** hau aurkezten du:

KONTROL MOZIOA:

1.- Donostiako Udaltzarak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari, udalbatzarretako gai zehatzak entzutera norbanakoak eta eragileak datozenean, malgutasunez joka dezala etenaldiak egiterakoan, beharrezkoa bada puntu zehatzen lanketa aurreratuz.

Donostian, 2018ko azaroaren 16an

Olaia Duarte López

EH Bildu udal taldeko zinegotzia

IFK/
CIF/
P2007
400A/
TEE/R
EL
01200
697
10655
IFK/
CIF/
P2007
400A/
TEE/R
EL
01200
697
10655
2011-
06